

GAKO EKONOMIKOAK

- Hazkunde ekonomikoaren eta enpresa jardueraren martxak berri onak sortzen jarraitzen du maila globalean, Estatu Batuetan batez ere.
- Itxiera positiboak munduko burtsa nagusietan.
- Europako eta Ameriketako bonuen errentagarritasunaren goranzko orokorra.
- Euroa egonkor mantentzen da dolarraren aurrean.

MAKROEKONOMIA ETA MERKATUAK

Munduko indize nagusiek aurrerapen nabarmenarekin itxi dute uztaila. Markatutako hilabetea izan da hau, batez ere, tentsio komertzial eta geopolitikoengatik, esaterako, Alemania eta Erresuma Batuak herrialdeetako zalantza politikoez gainera, Banku Zentralen jokaeragatik eta enpresa-emaizten kanpainagatik. Uztailan Alemanian gobernu-krisialdi baten lekuko izan gara, Angela Merkel-en koalizioa arriskuan jarria izan baitzen migrazioaren auzia zela-eta, Erresuma Batuan ere Gobernu kolakan jarri zen "Brexit" irteerari buruz Theresa May lehen ministroaren egitasmoaren aurka zeuden zenbait ministroren dimisioak eraginda. Baina, inbertitzaileen arreta, batez ere, Estatu Batuetako presidente Donald Trump-engan eta gerra komertzialari buruzko haren ekintzetan kokatzen zen. Hilabeteak aurrera egin ahala, besteak beste, Txinarekin gordintzen joan zen tentsio komertziala nabarmentzen da. Uztailaren hasieran, Txinako ekoiak 200.000 dolarretako balioa zuten arantzelak ezartzea iragarri zuten Iparramerikako gobernuak, egun batzuk geroago bikoiztu egingo zituela mehatxatuz. Txinak, bere aldetik, estatubatuar inportazioen kontra arantzelak aplikatuko zituela mehatxatu zuen. Oraingoan, ordea, Trump haratago zihoan, uztailaren erdialdera berriro kezkatu zuen merkaturak, bere homologoa zuten errusiar Vladimir Putinekin elkarriketatu eta merkataritza-gaia Europar Batasuna areriotzat jo ondoren. Europak neurri posiblerekin erantzuten zuen arren, azkenean, su-etena egin zuten bi herrialdeek hainbat negoziazioen ondoren, "zero arantzel" egoerantz elkarrekin aurrera egiteko konpromisoarekin. Gerra komertzialaz kanpo, banku zentralak ere izan dute beren protagonismoa, batetik, amerikar Erreserba Federalak hildaren amaieran adierazi zuen aurrera joko zuela oraingo moneta politikarekin, bere tasa igoera mailakatuarekin, Trumpentzat oso gustukoa izan ez zen proposamena. Europar Banku Zentralak, beriz, tasak % 0an mantentzea erabaki zuen, zorren azken erosketak abendurako iragarri. Bien bitartean, Japongo Bankuak bere estimulu masiboen politikan malgutasuna iragartzen zuen berak hazkundera eta inflazioan zituen aurreikuspenak murriztu ondoren. Makro mailan hilabetean zehar argitaratutako datuek indar-zeinuak agertzen dituzte hazkunderako, NDF-ak argitaratutako azken proiektioek bermatzen dutena, non % 3,9ko hazkunde globala mantentzen duten urte honetarako eta hurrengorako. Bukatzeko, eremu korporatiboan, gaur egunera arte argitaratutako enpresa-emaizetan positiboa da tonua, bere horretan jarraitzen dutelarik ezusteko positiboek eta bi digituren hazkundeak.

ERRENTA ALDAKORRA

Merkataritzako neurri protekzionistak testuingurutat hartuta, burtsak egoera makro onean eta argitaratu diren enpresa-emaizta positiboetan babestu dira, igoera garrantzitsuekin uztaila ixteko. Europako burtsa protagonisten antzera, alemaniar burtsaren % 4,06aren aurrerapena nabarmenduz, DAX, edo Eurostoxx50-aren % 3,8arena. Espainiar selektiboa europar indize nagusien atzealdean geratu da, % 2,58ko aurrerapena izan duen arren eta joan den apiriletik hilabeterik onena itxi. Amerikar merkatuentzat ere igoera garrantzitsuak izan dira: S&P500-ek % 3,8a, Nasdaq-ek % 2,29a, baina batez ere Dow Jones nabarmendu da, hilabete hegakorra izan ondoren, uztaila % 5aren inguruko aurrerapen batez itxi baitu. Lehen seihileko enpresa-emaiztak argitaratzea izan da merkaturen katalizatzaile nagusia, zeren eta S&P-a osatzen duten konpainien % 85a izan baita merkaturako aurreikuspenak gainditu dituen. Nasdaq baino ez da geratu atzera samar, Netflix, Facebook eta Twitter-ek eragindako desengainuarekin. Euroguneko enpresek argitaratutako emaizetan ere positiboa izan da tonua.

INDIZEA	ESKUALDEA	ORAINGO MAILA	DIBISA	2018ko ALDAK.
IBEX-35	ESPAINIA	9.870,7	EUR	%-1,72
EUROSTOXX-50	EUROPA	3.525,49	EUR	%0,61
S&P-500	AEB	2.816,29	USD	%5,34
DOW JONES	AEB	25.415,19	USD	%2,82
NASDAQ 100	AEB	7.231,98	USD	%13,06
NIKKEI-225	JAPONIA	22.553,72	JPY	%-0,93
EMERG. MSCI	EMERGENTEAK	1.087,46	USD	%-6,13
MUNDUKO MSCI	GLOBALA	2.153,096	EUR	%2,36

Iturria: Bloomberg

ERRENTA FINKOA

Junker eta Trump-en arteko merkataritza-politikari buruzko akordioak eta hilabetean zehar argitaratu diren datuen tonu egokiak europar eta amerikar kurben errentagarritasunaren igoera orokorrak adierazten zituzten. Alemaniar bonuaren hamar urterako errentagarritasuna 14pbs bukatzen zen % 0,44 igoz, aldiz, hamar urterako bere espainiar homologoarena % 1,40a zen. Estatu Batuetan % 2,96arekin ixten zuen hilabetea, ekaineko itxieraren 10pbs gainetik (% 2.86a). Bestalde, kredituaren merkatuak hobera, 13pb-an estutzearekin itxi hilabetea.


INDIZEA	EPEA	ORAINGO MAILA	2018ko ALDAK.
EURIBOR	3 HIL.	-0,32	0,01
	6 HIL.	-0,27	0,00
	12 HIL.	-0,18	0,00
ALEMANIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,57	0,06
	5 URTE	-0,13	0,08
	10 URTE	0,44	0,02
ESPAINIAKO ZOR PUBLIKOAK	2 URTE	-0,31	0,03
	5 URTE	0,36	-0,03
	10 URTE	1,40	-0,17

Iturria: Bloomberg

DIBISAK

Dolarrak egonkor jarraitzen duen Euroaren kontrako kotizazioan, baina moneten ahultzea nabarmentzen du, besteak beste, Yen-arena edo Yuan-arena, merkataritza gerraren ondorioz. Bestalde, lehengaietan, petrolioaren prezioan % 7.01aren atzerakada nabarmendu behar da. Arabia eta Errusiaren aldetik produkzioak gora egin duela berresten da eta Estatu Batuen eta Txinaren arteko merkataritza-gatazkak izan ditzakeen efektuak izango lirake atzerakada honen arrazoi nagusiak.

Euro/Dolar



Iturria: Bloomberg